



PRENTSA OHARRA

Berbakeita word-kafea: 'Gazteak eta Komunikabideak'

Komunikabideek “gazteen errealitatea desitxuratzen” dutela salatu dute

- “Estereotipo gehiegi” erabiltzen direla dio Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko txosten batek.
- Gazte- elkarteek “bere burua saltzen ez dakitela” antzeman dute.

Bilbao, 2009ko urtarrilaren 29a Hedabideek gazteriaren “irudi *sinplifikatzaile* eta estereotipatua saltzen” dutela salatu dute hainbat gazte, elkartetako kide, kazetari eta gazteria teknikari eta zinegotzik. Horrela jasotzen du Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) gaur aurkeztu duen “Gazteria eta Komunikabideak” txostena.

Dokumentu honek Bilbo, Donostia eta Gasteizen burututako hiru ‘word-kafe’ren ondorioak jasotzen ditu; *Berbakeita* bezala bataiatutako eztabaida-saio horietan parte hartu zuten gehienek arabera, egunkariak eta irrati zein telebista kateek “ez dute gazteen errealitatea islatzen; edo, gutxienez, ez dute errealitate osoa islatzen”. “Osotasunaren zati bat besterik ez dute jasotzen eta, orokorrean, *zatiirik beltzena* izaten da”, seinalatzen dute. “Arazoa -diote- zati horri osotasun-itxura ematerakoan sortzen da; edo, beste era batera esanda: estereotipoak neurririk gabe erabiltzen direnean, errealitatea desitxuratzera ino”.

Eztabaida saioen solaskide gehienek arabera, bi dira “desitxuratzeko” horren zergati nagusiak. Lehenengoa komunikabideen lan-ohituretan bilatu behar da. Izan ere, abiadura zoro-sutsuan aritzen baitira kazetariak, informazioa kontrastatu eta lantzeko ia

“Bandalismoa, atxiloketak eta boteloiarekin lotuta agertzen dira; beste guztia ez da agertzen eta, hortaz, ikusezin bihurtzen da”

astirik gabe. Bigarren zergatia “*notizioso* denaren kontzeptuan egon daiteke”, parte-hatzaileen hitzetan. Txostenaren arabera, “gertaera positiboek edota ohikoek ‘saltzen’ ez dutenaren premisa onartzen da; ordea, berri bihurtu daitekeenaren lehengaiak honakoak dira: gertaera negatiboak, eskandaluak, alarma pizten duena eta salbuespenak... eta, kazetaritza ulertzeko modu horrek, gazteen irudia aipatutako “lehengai” horietara lotuta egotea dakar: alarma pizten duenari, kutsu negatiboko jazoerei eta salbuespenei *erantsita*, hain zuzen”. Edo, zehatzago, “boteloiari, pasotismoari, droga-kontsumoari, trafikoko-lehieiei,

www.egk.org



bandalismoari, atxiloketei... lotuta; beste guztia ez da agertzen eta, neurri batean, ikusezin bihurtzen da”, dio ondorio-txostenak.

Dena den, “komunikabideak ez dira egoera honen erantzule bakarrak”. Dokumentuak dioenez, norbanako gazteek eta gazte-elkarteek ere *etxerako lanak* egin behar dituzte baldin eta hedabideetan duten presentzia-maila eta irudia hobetu nahi badute. Zehazki, txostenak dio “kazetarien lan egiteko modua ezagutu behar dutela, bere deialdiak, manifestuak, prentsaurrekoak eta egitasmoak salgarri egin ahal izateko”. Gaur egun, “elkarte gehienek ez baitakite bere burua saltzen”: horretan bat-egiten dute solaskideek.

Bestalde, eztabaida saioetan parte hartu zuten gazteria teknikarien arabera, beraiek ere zailtasunak izaten dituzte bere arloetatik sortutako ekimenen informazioa komunikabideetan plazaratzeko. “Ordea, Hirigintza bezalako beste sail batzuk pil-pilean egoten dira beti”.

‘Nola eman titularra’

Baina dena ez da gaitzespena txosten honetan. Solaskide gazteek, elkartetako kideek, kazetariak, teknikariak eta zinegotziek “hobekuntza-proposamenen zerrenda luzea osatu dute, karikaturak saihestu eta gazteen inguruko eta gazte elkartegintzari buruzko berri-positiboak ugaltzeko”.

Proposamenetako bat gazte-elkarteen eta tokian-tokiko komunikabideen arteko harremana indartzea da; bestalde, hedabideek pertsona gazteen inguruan jasotzen dutenaren behatoki bat martxan jartzea iradoki dute ere. Administrazioari “komunikazio-estrategiak garatzen ikasteko tailerrak martxan jarri ditzan” eskatzen diote (esaterako, prentsaurrekoak egiten eta ‘titularra edo kortea ematen’ ikasteko...). Ildo berean, instituzio publikoei tresna eta baliabideak eskatzen dizkiete, gazteek bere komunikazio-bideak izan ditzaten: hala nola, ikus-entzunezko materiala, komunikazio-euskarriak eta lokalak. Testuinguru honetan, dena den, komunikabide tradizionalen aurrean Interneten aldeko apustua egitea komeni dela diote eztabaidan parte hartu zuten gazte gehienek. Guztiarekin ere, honakoa azpimarratzen da: sinpletze eta estereotipatze prozesu horiek ez direla gazteekin bakarrik gertatzen. “Beste adin-talde, kolektibo eta sortutako kategoriekin ere gauza bera egiten da”. Hori dela eta, txostenak “kazetaritza egiteko modu berriak” pentsatu eta garatzeko gonbitea luzatzen du

Ondorio-txostena dagoeneko Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko web-gunean eskuratu daiteke (www.egk.org)

Solaskideen esaldietako batzuk:

- “Denak zaku berean sartzan gaituzte”.
- “Komunikabideak show bussines bihurtu dira, eta elkarteen ekimenak, nahiz eta onak izan, ez dira agertzen; ez dira show”.
- “Gazteek geroz eta gutxiago irakurtzen dute egunkaria. Hori horrela izanik, produktua ez da haientzat egiten”.
- “Elkarteek bere burua saltzen ikasi behar dute”.

+info: komunika@egk.org
94 443 61 43